

Ume bilakatzeko elkartasunezko oparia

OHIKOA da gure Euskal Herrian elkartasuneko ekin-tza moduan abestiak idaztea edo kantuen bildumak osatzea. Ohikoa eta txalogarria, dudarik gabe. Baina oro har musikazale moduan gero eta gehiago eskertzen ditut horien artean ohikotik gutxienez zertxobait alden-tzen diren proiektu eta emaitzak, bederen original-tasan eta freskotasun puntu bat erakusten dutenak. Eta azken aldian umeekin lotutako halako bi proiektu-piztu dute nire arreta. Bata, urte hasieran orriota-erakari nuena, *Bakarrik eta libre* Imanol Urbietaren kantuetan oinarritutako lan aberatsa, baliabideetan eta parte-hartzean arranditsuagoa. Eta bestea, Mingots eta Garratzek konposatutako kantuekin, bi horiek, beste hainbat musikariek, gurasoek eta Pirritx, Porrotxek eta Marimototsek Argantzón Ikastolaren alde egindako diskoa.

Trebiñuko Ikastolaren aldeko ekimenak xumea dirudi oinarrian, herrikoia erabat eta esango nuke proiektua parte-hartzaileak batzen joan dela bidean, asmoez eta gauzak egiteko moduz kutsatuta. Agian horregatik, hain zaila izan ohi den oreka lortu du diskoak: batutako kante berdin balio dute umeen zein helduen gozamenarako.

Pertsona askok eman dute onena disko honetan, baina ezin aipatu gabe utzi Mingots –Dut eta Kuraian aritutako Joseba Ponce– eta Garratz –Lisaböko kide Karlos Osinaga–. Biak ala biak arduratu dira umei idatzitako kontakizunei musika jar-tzen, beraien ibilbidean jorratutako estiloetatik urrun, baina oso fresko, irudimentsu eta dotore. Alboan musikari fin jatorrak izan dituzte eta deneta-



Aupa Argantzón ikastola!
Pirritx, Porrotx eta Marimotots
Garratz eta Mingotsekin Trebiñun
Bonberenea Ekintzak, 2014

riko instrumentu eta gailuak –azken hauek etxean aurki daitezkeenak– erabili dituzte estilo eta aurreiritzien gainetik, umeak bailiran, salto egiteko. Eta garrantzitsuena, disko-ak goitik behera ederto pasa dutela transmititzen du, umeentzat zein ume izan nahi dugun helduentzat funtsezkoa dena.

Txiribil sugandil tronboi eta hammondak irekitzen dute, Kusturicaren parera. Pirritx rapean aritu da, eta kantak, B52ren tankera hartu ahala, Nina Hagenen gisa egiten du eztanda. *Irria*-k Rolling Stones izan dezake abiapuntu, baina rocketik urrunduz gero eta dantzagarriago bilakatzen da. *Asteburua* soula da, *groove* handiarekin, nahiz eta tartean txirula zein *Teleñeco*-ak gehitu. *Nire kabuz baita ere* piezak Pistols-en antzeko introa badu ere, hammondarekin tenperatura hartu eta Buzzcocks maisuen gisako punk-pope-tik hurbil, hit bihurtzen da. Perkusioa eta txirula ezkontzea ezinezkotzat hartu arren, Jethro Tull ere melodikoa izan daitekeela egiaztatu dute *Nabiago dut* kantan. *Mamia* estandarragoa da, Hertzainak-en usainean, skaren ziprizontekin, jendearen belarrietan geldituko da. *Laku hop* borobilak soula, hip-hopa eta jazza garatuta, hildakoak ere dantzan jartzeko lehergaia da. Eta diskoa ixteko, folk eta pop-rock iragazgailutik pasatako *Alavatik Arabara* ezaguna. ■

Iker Barandiaran



Kanporaketak



Galdakaon, urriaren 12an, 17:30ean, Torrezabal Kultur Etxean



Aitor Bizharra Ruiz

Beñat Ugartetxea Ostolaza

Garikoitz Sarriugarte Onandia

Ibon Ajuriagozaskoa Garmendia

Iñaki Ilurriotz Zuluaga

Julen Erezuma Arzanegi

www.bertsozale.eus/bizkaikotxapelketa

